

## **HAURTZARO IKASTOLAKO MENDI TALDEA**

### **Otsailak 9- EGIAR**

**Eguna:** Otsailak 9, igandea.

**Irteera:** 9:00etan Ikastolako parkinetik.

**Itzulera:** 13:00etan.

**Ibilbidea:** 7 Km. Oraingoan herri ingurutik egingo dugu ibilbidea.

Ikastolako aparkalekutik abiatu eta bidegorrira joko dugu Ergoien aldera. Altzibar atzean utzi eta iturria pasa bezain laster ezkerretara joko dugu Iriberrri jatetxerantz. Errepidea kontu handiz pasa eta bidez bide Egiarko mairu-baratzetara igoko gara. Bertako ikuspegi paregabeaz gozatu ondoren, Ameztovieta baserrian bidea gurutzatuko dugu Gurutzera jaisteko. Bertan mokadutxo bat jan ondoren Urkaberako bidea hartuko dugu eta Legarreko maldan behera plazara iritsiko gara.



**Izen ematea:** [EGIN KLIK HEMEN](#)

**Epea:** otsailak 6, osteguna.

**OHARRAK:**

1. LH3tik gorako ikasleek izango dute irteeretara etortzeko aukera.
2. Eraman beharrekoak: arropa eta oinetako egokiak, zira, hamaiketakoa eta ura.
3. Eguraldiarengatik aldaketarik egin beharko balitz, Mendi Taldeak bere esku hartuko luke eginkizuna.
3. Azken orduko ezusteetarako telefonoak: Mikel 697293095 eta Lorena 679358740.
4. Mendi taldearen urteko irteeren informazioa eta irteeren argazkiak: [www.haurtzaroikastola.eus](http://www.haurtzaroikastola.eus)



Haurtzaro Ikastolako Mendi Taldea